


Azterketa 2. Zatia

1. [1 puntu] Ondorengo VisualBasic-eko interfazea emanik:



Ondorengo portaera duen programa inplementatu ezazu: *Exekutatu* botoia aukeratzean *Text1* eta *Text2* testu-kutxetan dauden zenbakien kenketa egin behar du. Emaiza *Picture1* izeneko objektuan emanez. *Ezabatu* botoia aukeratzean, bi testu-kutxak eta *Picture1* hutsik utzi behar ditu. Azkenik, *Irten* botoia aukeratzean programak amaitu egin behar du. Erabiltzaileak testu-kutxetan sartutako balioak zenbakiak direla suposatuko dugu.

2. [3 puntu] Zilindro baten azalera eta bolumena kalkulatzeko dituen programa idatzi. Horretarako, behar diren datuak eskatuz eta emaitzak pantailan idatziz.
- Gutxienez bi prozedura idatzi.
 - Aurreko prozedurak erabiliz, eskatzen den programa idatzi.



3. [2,5 puntu] Diseinatu eta idatzi zenbaki osoen sekuentzia bat irakurtzen duen programa bat. Sekuentziaren amaiera: irakurritako azkeneko zenbakia, aurretik irakurritako zenbaki guztien baturaren zatitzailea denean izango da. Pantailaratu zein diren batura, zenbakia eta baturan dauden zenbaki bikoiti kopurua.

Adibidea:

a) 2
1

Emaitza:

batura: 2
zenbakia: 1
bikoitiak: 1

Adibidea:

b) 3
4
5
3

Emaitza:

batura: 12
zenbakia: 3
bikoitiak: 1

Azterketa 2. Zatia

4. [3,5 puntu] Arabako diputazioak, Arabako 10 herrietan plubiometroak (euri kopurua neurtzeko neurgailuak) kokatu dituzte, hilerro estatistika batzuk ateratzeko asmotan. Herrietako begiraleek herri-kodea eta bertan egin duen euri kopurua zentralera bidaltzen dituzte hilabete bukaeran. Zentralean, datu hauek modu desordenatuan jasotzen dituzte. Laguntza bezala, herrien izenak taula batean gordeta dituzte, non herriaren kodea eta bere izena gordetzen den posizioa berdina diren.

Bertako langileari gehiago laguntzeko, estatistikak modu automatikoa ordenagailu bidez lortzeko programa idatzi.

Egin beharrekoa:

- Behar diren datu egiturak definitu
- Zentraleko langileak, begiraleek bidali dituzten datuak (teklatu bidez) programari pasako dizkio. Diputazioan dituzten datuak, berriz, ez. Hauek dagoeneko programak izan behar ditu.
- Lortu eta pantailaratu ondorengo estatistikak:
 - Egin duen euri kopuru maximoa eta herriaren izena.
 - Batezbestekoa baino euri gehiago egin duen herrien izenak.

Adibidea:

Diputazioan dituzten datuak:

Begiraleek bidalitako datuak:

	Herriak	Herri-Kodea	Euri-Kopurua (litro/m ²)
1	Agurain	5	100
2	Araia	6	250
3	Gasteiz	2	200
4	Bastida	4	50
5	Legutiano	9	20
6	Oion	3	500
7	Gopegi	1	425
8	Luko	10	75
9	Amurrio	8	30
10	Laguardia	7	150

Euri kopuru maximoa: **500**

Herria: **Gasteiz**

Batezbestekoa baino gehiago: **180** Herriak: **Agurain, Araia, Gasteiz, Oion,**